

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2048

681/2025 EBAZPENA, maiatzaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Medikua kategorian (Gaixotasun Infekziosoen FEM lanpostu funtzionala) Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1755/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Medikua kategorian (Gaixotasun Infekziosoen FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 13ko 300/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren Medikua kategorian (Gaixotasun Infekziosoen FEM lanpostu funtzionala) Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoaz jabetzeko izapideak egiteko.

Bat etorri Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin, Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistema bidez hautatutako Medikua kategorian (Gaixotasun Infekziosoen FEM lanpostu funtzionala) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu duela eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu dela, zerrenda hori webgunean argitara zedin, langileen arloan indarrean dagoen lege-riak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAA n argitaratzeko agintzea Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla Medikua kategorian (Gaixotasun Infekziosoen FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek esleitu zaien destinoko zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan jabetu beharko dira lanpostuaz Horretarako, izangaiek hitzordua eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziplina-espedita bidez hautagaia administrazio publikotako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikotarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikotarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu eztean, galdu egingo dutela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

2025eko maiatzaren 15a, osteguna

Laugarrena.– Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorren 21. atalean ezarritakoaren araber, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko maiatzaren 15a, osteguna

ERANSKINA

2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO EGONKORTZEA
 DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
 FAK. ESP. GAIXOTASUN INFEKTSIOSOETAKO MEDIKUA
 TXANDA IREKIA LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9117**	Ibarguren Pinilla, Maialen	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Infekzio-gaixotasunak-Gaixotasun Infekziosoak / Goizez- Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2 2022-10-18
***0571**	Irazola Diaz de Rada, Idoia	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)- Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Infekzio-gaixotasunak-Gaixotasun Infekziosoak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2